

Kontatu didate

Kontatu didate Nueva Yorken
Bernaten anaia dagoela,
Bernat's bro.
Harlemeko krak etxeetatik hurbil
Nueva Yorken dagoela
kontatu didate.
Bere anaiaren begien indarraren bila
etengabe dagoela ere badakit
"be my mirror"
esan zuen Lou-k Nueva Yorken
eta gero Bernatek uhinen bitartez Bilbotik.

Kontatu didate anaiaren islada
Bernaten muskuluetan
nabarmentzen eta ikusten dela.
Bernaten bizarran ere, kontatu didate.
Beste behin ere
Artxandatik gertu
larunbatean,
basajaunekin egongo dela
ispiluaren beste aldean,
alde opakoa kontatu didate.
Isladak, ikustezin
bihurtzen duen aurpegi beltzean...
baina ispiluaren
materia osatzen duena halere,
itzala moduan.

Anaia graffitiien bila dabilela,
Bernat ikusteko.
Jazz kontzertuetara doala,
Bernat entzuteko.
Pelikula bat ikusten duela,
Bernat bilatzeko.
Kandelak piztuko dituela
Bernat ospatzeko
eta bere gauak iluminatzeko.

Mundua besarkatzen dudala
Bernat maitatzeko
kontatu didate Nueva Yorken.

